

2014ko kontratazio-zerrendak: Informazio oharra

Izen-emate epea zabalduko da kategoria hauetarako

- 2011ko EPEan deitutako kategoriak
- 2014ko EPEan deitu ez ziren kategoriak, etengabe zabalik ez daudenak eta hautagaien beharrezana dutenak:

Goi Mailako Informatikaria
Goi eta Erdi Mailako Hizkuntzaren Normalizazioko Teknikaria
Goi eta Erdi Mailako Prebentzio Teknikaria

Aurreikusitako izen-emate epea

2015eko urtarrilaren 8tik 30era, biak barne. 2015eko urtarrilaren 8an "2014ko Lan-Poltsetako webgunea" prest egongo da, hautagaiek izena eman dezaten.

Izen-emate epea zabalik izango duten zerrenda motak

- Hutsik edo erreserbatuta dauden lanpostuen zerrendak (osasun eremuen aukeraketa: Araba, Bizkaia eta/edo Gipuzkoa)
- Ordezkapen eta behin-behinekotasunetarako zerrendak (2 zerbitzu-erakunderen aukeraketa, osorik edo gehienez 5 zentro erakunde bakoitzetik)

Ordezkapenetarako zerrendetan eskainiko da Osakidetza 2015. urtean izango duen antolamendu-egitura.

Izena emateko era eta erantsi beharreko dokumentazioa

Elektronikoa izango da, 2014ko Lan-Poltsetako Osakidetzaren webgunearen bitartez. Aurrez-aurreko arretarako bulegoak ere prestatuko dira.

Jarraibideak argitaratuko dira, interesatuen izen-ematea errazte aldera.

Interesatuak izen-emate epean erantsi behar duten dokumentazioa (Osakidetzaren CV aplikazioan balioztatuta dagoenean izan ezik), argitaratuko diren jarraibideei jarraituz:

- Kategoria bakoitzera sartzeko behar den titulu akademikoaren kopia konpultsatua.
- Beste Administrazio Publikoetan egindako lanaren jatorrizko ziurtagiria edo notarioak jaulkitako benetako kopia.
- Hizkuntza - eskakizunaren ziurtagiria

Aplikatu den araua

ERABAKIA, 2011ko maiatzaren 9koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio zerrendak egin eta kudeatzeko dena.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko abenduaren 22an.